

OSTEGUNA

2018/07/12
6. urtea, 905. zenbakia
107,6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Sei harri jasotzaile ariko dira lehian, Alegiako harri txikien saioan

Idoia Etxeberriak erakustaldia eskainiko du, txapelketak utziko dituela iragarri berritan // 07

Omenaldia jaso dute, Iruñean, Incansables Txarangako kideek

25 urte daramatzate, sanferminetan, Alegria De Iruña peñarekin festak giroten // 06

«Mendia afizio bat da niretzat, eta beti horrela ikusi izan dut»

IÑAKI OLANO MENDI LASTERKARIA

Denboraldi bikaina biribildu du altzotarrak, mendi lasterketetan, hiru garaipen eta hainbat podium eskuratuta; atseden hartu nahi du orain, eta «presiorik gabe» ekingo dio datorren denboraldiari // 05



Talde argazkia atera zuten, Polloeko hilerrian, Aranaren senideek, ordezkari politikoek, Aranzadiko kideek eta auzolandegietako kideek. JON MIRANDA

Jose Arana Irastorza omendu dute Polloen

1936ko irailaren 17an hil zuten, Zarate Bentan, eta Zizurkilgo Udalak aitortza egin nahi izan dio, EAE-ANVko gudariari // 03

Mapa bat osatu dute Berastegiko 160 baserri eta etxebizitza kokatzeko

Pablo Feo eta Miel Elozegi leitzarrek egin dute proiektua, herrigunetik kanpoko etxeak irisgarriago izan daitezen; metroko mapen itxura eman diote lanari // 04

zozketak

Atarikideentzat **produktu sorta** dugu

TOLOSALDEKO ATARIA-REN PRODUKTU SORTA

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak** arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Pirinioetara irteera antolatu du Berrobiko Ibin Kirol Klubak

Asteburuan joango dira eta El Pueyo de Jacako aterpetxean egingo dute lo; adin txikikoek arduradun batekin joan behar dute

Erredakzioa Berrobi

Berrobiko Ibin Kirol Klubak Pirinioetara irteera antolatu du astebururako. Larunbatean Aragoiko Anayet lakura igoko dira eta igandean Laku Urdinetara eta Bachimañara joango dira. El Pueyo de Jaca herrian dagoen aterpetxean egingo dute gaua. 26 pertsonak eman dute izena.

ARROPA EGOKIA

Antolatzaileek arropa egokiak eramateko eskatu diete parte hartzaileei. «Oraindik ez dakigu seguru zer eguraldi egingo duen, baina 2.000 metrora egongo gara, beraz, arropa egokiak eramatea eskatzen dugu», esan dute. Eguzkitako krema eta betaurrekoak ez ahazteko eskatu dute eta «gomendagarria da euritakoa edo antzeko bat eramatea ere».

Larunbata eta igandea mendian pasatuko dituzte eta, beraz, jatekoa eta edatekoa eraman behar direla ere gogorarazi du Ibin Kirol Klubak.

Larunbatean 05:45ean aterako dira Berrobiko udaletxe ondoko aparkalekutik, eta jada mendira joateko moduko jantziak eramateko eskatu dute.

09:00etan abiatuko dira Anayeteko lakurantz. 5 ordu eta 45 minutu inguruko ibilbidea izango da. Laku Urdinen ingurura iristeko 8 bat ordu beharko dituzte. Panticosatik abiatuko dira hara.

Balleteko eskaintza zabalduko du Alurrek, datorren ikasturtean

Bi talde egongo dira, 8 eta 12 urte artekoena eta 13 urtetik gorakoena; webgune berria ere badu Ibarako dantza taldeak, eta datorren astean izango da erabat erabilgarri

Rebeka Calvo Ibarra

Ikasturtea bukatu ez dutela, datorrenari begira jarri dira Alurr dantza taldeko kideak. Izen ematea zabaldu dute jada, eta iraila bukaerara bitarte izango da zabalik. Ikasturtero zerbait berria eskaintzen saiatzen direla esan du taldeko Eli Nosellasek eta datorrenean ere hala izango da. «Gauza berriak probatu, eskaini eta aurrera egiten duten ala ez ikusten dugu, eta horren arabera erabakitzen dugu zer egin. Datorren ikasturterako iaz eskaini genuen balleta indartzea erabaki dugu», esan du.

Nosellasek azaldu moduan, pasa den ikasturtean balleteko talde bat osatu zuten, eta datorrenean bi izango dira. «Iaz dantzan jarraitu nahi zuten horiei begira antolatu genuen eta, eskaera handitu denez, beste talde bat osatzea erabaki dugu. Haurrek ere egin nahi dute eta beste nonbaitera joaten ibili ordez, herrian bertan eskaintzera animatu gara. Gertutasuna oso garrantzitsua da». Katixa Perea izango da irakaslea: «Katixarekin aspalditik egiten dugu lan eta gustura gaude. Oso ona da, profesional aparta. Urtetan gauza zehatzak eta prestakuntzak egin izan ditu. Aurrerantzean, zerotik hasiko da haurrekin, teknikak irakatsiz. Balletak asko lagunduko die eskal dantzetan; prestakuntza,



'Irradak' eskainiko dute, Olaztin, uztailearen 27an. JUAN MARI IBARZABAL-ALURR

presentzia, teknika zehatzak... Balleteko teknikak fisikoki oso baliagarriak dira, oso garrantzitsuak dira bizkarrezurrarentzat, nola erori jakiteko, saltoak ematen ikasteko...», azaldu du dantza taldeko kideak.

Beste berrikuntzetako bat dantza solte txapelketako klaseak izango dira. Astearte eta larunbatetan emango dituzte. «Iaz hasi ginen, esperimentu bezala, eta oso ondo ateratu da. Bertakoak eta herri txikietakoak etortzen dira. Eskola horietara joaten direnek ez dute derrigorrez txapelketetan parte hartu behar, baina nahi dutenei eta aukera duten horiei laguntzen diegu. Beste era bateko dantzak egitegatik hasi ginen. Taldean plazako dantzak eskaintzen ditugu, baina eskolak astean behin emanda ez du denerrako aukera ematen, eta horregatik hasi ginen».

Izen-ematea zabaldu du, beraz, Alurrek, eta webgunean bertan dago aukera. Informazio ia

guztia bertan dago, eta datorren asterako erabat osatuko dutela esan du Nosellasek. Izan ere, webgunea berritzen ari dira, eta ia bukatu dute. Dena den, informazio guztia kultur etxean bertan eskura daiteke. 635 757 048 telefono zenbakira deituta ere jaso daiteke informazioa.

WEBGUNEA

Bukatu berri den ikasturteko erronketako bat alurr.eus webgunea berritzea izan da. «Eguneratu beharra zegoen eta horretan ere aritu gara. Datorren asterako erabat bukatuta egotea espero dugu».

Ikasturtea hasi aurretik ere «nahiko lan» badutela dio Nosellasek, eta udan hainbat emanaldi dituztela. Hurrengo asteburuan bertan izango da; Lekeition ariko dira hamaikagarren aldiz. Baztandarren Biltzarrean ere egongo dira ibartarrak; uztailearen 22an dantzatuko dute Eli zondon.

Ireki dute gizarte zerbitzuetako diru laguntzak eskatzeko epea

Abuztuaren 6a da Ibarako Udaleko laguntzak eskatzeko azken eguna; elkarte zein norbanakoek eska ditzakete

Erredakzioa Ibarra

Ibarako udalbatzak maiatzaren 25ean onartu zituen gizarte zerbitzuetako diru laguntzen oinarriak. Oinarrien helburua da 2018an gizarte ekintzetako esparruan eman edo emango diren jarduerak, proiektuak edota programak laguntzea. Irabazi asmorik gabeko pertsona edo elkarteek eska ditzakete.

Diru laguntzetarako kontuan hartuko dituzte bazterterik ez gertatzea, publizitatea, objektibotasuna, gardentasuna eta berdintasuna.

Gizarte zerbitzuen esparruko diru laguntzak Ibaran bertan garatuko diren gizarte ekintzei edo egitasmoei emango dizkiete.

Zehazki, garapen bidean dauden herrialdeetara begirako lan-kidetza proiektuak, gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten norbanako zein elkarteak, erretiratu elkarteak eta genero berdintasunean lan egiten duten irabazi asmorik gabeko talde edo elkarteak lagunduko dituzte.

Diru laguntzak eskatu nahi dituztenek udaletxean bertan dauden inprimakiak bete beharko dituzte. Eta erakunde edo taldeek honako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte: estatutuen fotokopia aurkeztu beharko dute; pertsona juridikoen legezko ordezkari denaren NANaren fotokopia; Identifikazio Fiskalaren Zenbakiaren txartelaren fotokopia; eta zerga betebeharrak zein gizarte segurantzarekiko ordainketak eguneratuak dituela egiaztatzen duen agiria. Era berean, erakunde eskatzaileek proiektua zein jarduera hobeto baloratzeko egoki ikusten duen informazio edo dokumentazioa ere aurkeztu ahal izango dute.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

ANOETAKO HERRI IKASTOLAK
2018-2019 ikasturterako lanpostu hauek eskainiko ditu:

LANPOSTUA:

- BHko Teknologiko irakaslea.
- DBHko Arterko irakaslea (lanaldiaren %33an).

ONINARRIZKO ESKAKIZUNAK:

- Euskara: EGA titulua edota C2.
- Dagokion titulazioa.

Curriculumak e-mailez bidali behar dira: anoeta@ikastola.eus helbidera uztailearen 15erako.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburra.eus-en

Jose Arana Irastorza 1936ko irailaren 17an hil zuten, Zarate Bentan, Zizurkilen. Gerran hildako lehen EAE-ANVko gudaria izan zen eta Zizurkilgo Udalak aitortza egin nahi izan dio, Polloeko hilerrian.

82 urte beranduago dator aitortza

Jon Miranda Donostia

Zarateko Bentan, Zizurkilen, Euskadiren eta Errepublikaren defentsan ari zela hil zuten Jose Arana Irastorza donostiarrak 1936ko irailaren 17an. Gorpua berreskuratu eta Loiolan (Azpeitia) egin zizkioten hileta elizkizunak eta, gero, gordeka eraman zuten hilkutxa Arrasatera, lur ematera. 25 urte geroago, klandestinoki, Donostiako Polloeko hilerria ekarri zuten bere senideekin batera atseden har zezan; eta 57 urte gehiago behar izan dira gatazkan hildako EAE-ANVko lehen gudaria omentzeko. Zizurkilgo Udalaren ekimeenez, familiaren panteoian plaka jarri dute: «Gerra Zibilean borrokan hil zen EAE-ANVko lehengo gudaria. Eusko Indarra konpainiarekin Euskal Herria defendatzen ari zela hil zuten Zizurkilgo Zarate Bentan 1936ko irailaren 17an. Agur eta Ohore Eusko Gudariei!».

Joxemari Luengo Zizurkilgo alkateak zabaldu du ekitaldia eta nabarmendu du, «ezinbestekoa» iruditu zaiela omenaldia egitea: «Euskal Herriaren historiaren pasarte zail eta gogor bat gogora ekarri nahi izan dugu, memoria bizirik mantendu dezagun. Zor diegu». Zizurkilgoak, ondoan izan ditu, uneoro, Pili Legarra Asteasuko alkatea eta Josu Amilibia Adunakoa; izan ere, hiru udalerriek, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, urteak daramatzate memoria historikoa berreskuratzen. Aranzadi zientzia elkartearen laguntzaz, hiru udalek lan egin dute, 1936ko abuztua eta iraila artean, Aiztondoko mendietan, uztailearen 18an altxatutako militar kolpistei aurre egiteko helburuz sortutako defentsa sistema ikertzeko. Hainbat publikazio argitaratu eman eta, aurten laugarren aldiz, auzolandegiak antolatu dituzte mendietan eraikitako lubakiak ikertzeko. Larraulgo Udala batu zaie aurten proiektura, eta gazteak bertako lurretan ari dira, egunotan, indusketak egiten. Polloeko hilerrian egindako ekitaldian ere presente egon dira.



Jose Aranak bere osaba zenaren hilobian lore-sorta utzi zueneko momentua. J.M.

Belaunaldi berri horiekiko balioen transmisioan jarri du arreta Juan Ramon Viles Mitxelena Donostiako Udaleko Lehendakari-tza, Gardentasuna, Giza Baliabideak eta Berrikuntzako zinegotzi delegatuak: «Jose Arana Irastorza bezalako pertsonen erabateko konpromisoa agertu zuten balore demokratikoekin, eta gure betebeharra da hori oroitzeko. Guz-tia eman zuten ezere truke. Ohore bat da hemen egotea eta balio beza, ekitaldi honek, zor historikoa kitatzeko». Donostiarrak zen Jose Arana Irastorza, Donostian dago hilobiratuta, eta, horregatik, Donostiako Udalak ere parte hartu nahi izan du ekitaldian.

Udal ordezkarien eskutik lore sorta jaso ondoren, hunkituta hitz egin du Jose Arana Irastorzaren ilobak, osabaren izen bera daramanak: «Eskerrik asko Zizurkilgo Udalari, Aranzadi zientzia elkarteari eta, bereziki, Karlos Almorzari. Bera bezalako asko behar ditugu».

IBILBIDE LUZEA

Aranzadi zientzia elkarteko Jabi Bucos historialariarekin batera, Karlos Almorza doktoreak gidatu du Azpeitiko komandantziaren inguruko azterketa historikoa, azken urteotan. Bera tematu da frontean hildako lehen guda-

rien aztarnen bila, eta Jose Arana Irastorzari gertatutakoaz gehiago jakin nahian jo zuen Donostiako telefono gidara. Arana abizeneko guztiei hots egin zien, banan-banan, EAE-ANVko gudariaren ilobarekin topo egin arte. Esku zabalik hartu zuen honak: «Urte hauetan guztietan zure zain egon gara», esan zion etxeko atea zabaldu bezain pronto.

Jose Aranak esker onez jaso du osabari egin dioten omenaldia, «niregatik baino gehiago, nire amona zenagatik». Semea gerran hil ziotenez geroztik, gorpua Donostiara ekarri eta familiarekin ehorztea beste ideiarik ez zuen izan buruan, Dolores Irastorzak. Lortu zuen amestutakoa, Polloeko hilerriko panteoian berekin batera hilobiratuta baitaude, bere bederatzi seme-alabetatik bost. Tartean, gerran hil zioten hura.

Ez zen erraza izan, ordea, EAE-ANVko gudariaren gorpua Donostiara eramatea. Jose Aranak gogoan du amona zenak urtean bi bisita egiten zizkiola hildako semeari, Arrasateko kanposantuan: San Jose egunez buelta bat eta santu guztien egunean bestea: «Azaroaren lehen eguneko bisita horietako batean, euri ari omen zuen gogotik, eta gure amona busti-busti egin zen.

Gerra garaian latzak pasatako beste emakume bat tokatu zitzaion ondoan, Maritxu Etxeberria, eta etxera gonbidatu zuen, lehortu zedin eta zerbait hartu zezan. Egun hartatik aurrera, adiskidetasun handia sortu zen bi familien artean, gaurdaino iraun duena». Momentu zailtan ere jaso dute familia horren babesa: «Une batean amonari esan zioten osaba Joserren hilobia hustu egin behar zuela, eta gorpua-ekin zer egin jakin gabe geratu zen. Familia horrek bere panteoian lekua eskaini zion, eta gurutzearen atzean zegoen zulo batean sartu zuten osaba, adreiluz tapatuta. Handik erraz ateratzeko moduan utzi zuten hilobia, Donostiara ekartzeko ideia baitzuten nire aitona-amonek». 1961. urtean gauzatu zuten asmoa eta, orduan ere, isilpean ekarri behar izan zuten gorpua Arrasatetik. «Ordurako, ordea, amona hila zen».

Bizi izan zen artean, hala ere, ondo gogoan izan zuen Dolores Irastorzak gerran hil zioten semea. Gorpua hilobiz aldatzerako une horretan, semearen bi hezur txiki hartu zituen eta aldean eraman zituen hil zen arte. Etxean gordeta eduki zituen, baita ere, EAE-ANVko kideek hiletetako lore-koroan jarri zizkioten zintak eta semea frontean hil zietela ja-

kinaraziz idatzi zieten gutuna. Gaur egun, Jose Aranak Aranzadi zientzia elkartearen esku utzi ditu ondasun horiek guztiak.

Amak hildako seme gudariaren zion debozio bera dio, Jose Aranak, amona zenari. «Aitona-amonekin hazi nintzen eta beste seme bat bezala tratatu ninduten. Osabaren izen bera daramat, Jose, eta askotan pentsatzen dut ez ote ninduen, amonak, hil zioten semearen ordezkotzat hartu. Ez dut uste. Iruditzen zait nire tokia aitortzen zidala. Baina horrela balitz ere, ez litzaidake asko inportako. Ohore bat da ezagutu ez nuen osabaren izen bera eramate».

EAE-ANV-KO LEHEN HILDAKOA


Ilobak etxean entzun izan du nola hil zuten Jose Arana Irastorza: «Zarateko Bentan, gauez, zigarro bat piztu omen zuen eta hari zupada bat emandakoan ateratako argia ikusi zuen etsaiak. Buruan tiro eman omen zioten. Heriotza tristeza izan zen». Jose Arana ez da sekula izan Zarateko Bentan, baina gustatuko litzaioke tokia ezagutzea, «eta baita auzolandegietan dabilzan gazteek nire osabaren kontra tiroa bota zuen putasemearen bala-zorroa aurkitzea ere».

1913an jaioa zen Jose Arana Irastorza, eta 23 urte zituela hil zuten. Tabakalera egiten zuen lan, eta Donostiako Abuztuaren 31 kaletan zegoen Euzko Indarra elkarteko kidea zen. 1936ko uztaile bukaeran, EAE-ANVren deia erantzunez, boluntario talde bat agertu zen elkartean borrokarako prest, eta ia armarik gabe. Irun eta Zubeltzu aldean aritu ziren, Burutzan borrokatu zuten eta, batez ere, Zarateko Benta defendatu zuten. Han hil zuten Jose Arana, 1936ko irailaren 17an.

40 ordura, Aiztondoko mendietatik erretiratzeko agindua eman zuen Candido Saseta buruzagi militarrik. Hilabete pasatxo eutsi zieten mendian eraikitako lubakietan, Nafarroatik zetozen militar kolpistei. Erabakigarriak izan ziren egun haiek, atzeguardian, Errepublikaren gobernuak euskal autonomia estatutua onar zezan, eta lehen Eusko Jaurilaritza osatu zedin.

Berastegiko baserri eta etxebizitzak Bilboren pare

Metroko mapa baten itxura du Pablo Feo eta Miel Elozegi leitzarrek Berastegiko bizitokiak bilduz egin duten planoak



Berastegiko 160 bat baserri eta etxebizitza bildu dituzte, mapak, Feok eta Elozegik. ATARIA

Rebeka Calvo Berastegi

Leitzako Pablo Feok eta Miel Elozegik Berastegiko baserri eta etxebizitzaren mapa osatu dute. Ez da ohiko mapa, dena den, metroko maparen itxura baitu. Duela bost bat urte ezagun egin zen, Leitzan, bertan egindako mapa, eta sakabanatuta dauden etxebizitzetara iristeko eskaintzen duen modu erraza dela eta, beste herri batzuetara ere zabaldu dute; Areson, Zubietan eta Goizuetan ere egin dituzte.

«Leitzan baserrietara iritsi ahal izateko eskema moduko bat egin genuen, eta ikusi genuen itxuraz metroko mapa bat ematen zuela. Metroko mapek dituzten ezaugarriekin txukundu genuen, eta Leitzako baserri guztiak bildu genituen mapa horretan», esan du Feok.

Herritarrek «oso ongi» hartu zutela ikusita animatu ziren,

beste herri batzuetan ere gauza bera egitera.

Herrigunetik kanpo dauden baserri eta etxebizitza guztiak bildu dituzte, eta helburua horietara iristeko erraztasunak ematea da. «Herri batzuetan oso zaila izaten da herrigunetik kanpo dauden etxebizitza horietara iristea eta lan hori erraztu nahi dugu. Beharbada baserri pare bat-edo oso gertu ikusten dira eta bertan daudela pentsatzen dugu, baina, gero, hara iristea ez da horren erraza eta bidexka horiek bildu ditugu», gaineratu du. Maparekin, batez ere, garraiolari edo larrialdietakoei lana erraztu nahi izan diete. «Larrialdietako zerbitzuakoei iritsi behar badute, ez dute denbora asko izaten bueltaka ibiltzeko», esan du.

Berastegi aukeratu dute «eskura» eta «bertan» dutelako. «Lehenik baserrien eskema moduko bat egiten dugu eta, gero, beha-

rezkoak diren zuzenketa guztiak egiten ditugu; baserri guztiak joaten gara bidea ondo jarri dugun ikusteko. Berastegikoarekin hilabete-edo eman dugu».

Mapa «bizirik» dagoela ere esan du. Hau da, aldaketak gertatzen diren bezala, zuzenketa egiten dituztela. Feok eta Elozegik afizioz egiten dute lan hori, baina Berastegiko Udalak oso ondo hartu du, eta mapa herritarren artean banatzeko asmoa ere badu. Dena den, egileek mapa bera <https://flic.kr/p/26QdMop> webgunean jarri dute eskuragarri, eta bertan joango dira berri-tzen.

Baserrietan ere oso ondo hartu dute mapa, orokorrean. «Baserrietan ohituta daude jada, etxera norbaitek heldu behar duenean, herrigunera gerturatzen eta ber-

tatik etxera elkarrekin joaten; mapak lana erraztuko diela uste dugu».

MAPA ERABILGARRIA

Mapa oso erabilgarria dela dio, «erabat praktikoa» baita. «Proporzio eta distantziak ez dira zuzenak, baina hori ez da asmoa. Berez, garrantzitsuena da jakitea baserri batera iristeko zein bide hartu behar den, eta zenbatgarraren baserria den; laugarrena den edo ez, eskuinera edo ezkerrera jo behar den... Metro batean sartzen bazara ez dakizu zure geltokia lau kilometrora edo bost kilometrora dagoen, gutxienekoa da hori, dakizuna da zure geltokia laugarrena dela eta hor jaitxi behar duzula».

Baserri eta etxebizitzak non dauden zehaztu dute Feok eta Elozegik, baina izenak ere bildu

dituzte. «Izenak aldatzen badituzte edo baserri berri bat egiten badute, bilduko ditugu. Praktiko behar du izan, eta aldaketa horiek egiten joango gara». Baserrien izenak bildu dituzte, baina baita horien helbideak ere: «Helbide administratiboa ere jarri dugu. Askotan hara iritsi behar duenaren informazioa ez da baserriaren izena, baizik eta helbidea, eta horregatik biak jarri ditugu».

Berastegiko metroko mapan 160 bat baserri eta etxebizitza bildu dituzte. «Ez ditugu bordak eta uda nahiz asteburuak pasatzeko etxebizitzak sartu, eguneroko bizitokiak bildu ditugu».

Era berean, produktoren bat saltzen duten baserrien berri ere eman dute. «Oso polita da, ikusten delako herrigunetik kanpo ere badela bizitza, badirela jarduerak», esan du Feok.

Tolosaldea
Lanbide Heziketa Institutua

MATRIKULA

Uztailaren 12tik - 18ra

Tolosaldea LHII
Santa Luzia 17- Tolosa
943 65 11 47
idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

ERDI MAILA

- Soldadura eta galdaragintza.
- Mekanizazioa.
- Mikroinformatika sistemak eta sareak (eleanitza aukeran).
- Instalazio elektriko eta automatikoak (eleanitza aukeran).
- Merkataritza jarduerak (eleanitza aukeran).

GOI MAILA

- Administrazioa eta finantzak.
- Automatizazioa eta robotika industrialia (eleanitza aukeran).
- Sareko informatika-sistemen administrazioa (eleanitza aukeran).
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa (eleanitza aukeran).
- Eraikuntza metalikoak.
- Instalazio termikoak eta fluidodunak mantentzea.

Lan etorkizunerako lehen urratsak

Imanol Garcia Landa Altzo

Sekulako denboraldia egin du, aurten, Iñaki Olano (Altzo, 1988) mendi lasterkariak. Hamabi probatan parte hartu du eta, horietatik hamaikatan, ez da podiotik jaitsi. Bestea, Zegama-Aizkorri maratoia, 51. amaitu zuen. Hamaika podio horietatik hirutan lehen postua lortu du: Tolosako T2Tn, Berriozarreko Elimina Trailean eta Gabirian. Bigarren postuak Larraul-Hernio proban eta taldekako Ordiziako maratoian eskuratu ditu. Gainerakoe-tan hirugarren izan da: Berastegiko Negu Trailen, Urretxu-Zumarragako UZ proban, Orion, Amasako Loatzo Igoeran, Seguran eta Oiartzunen.

Zure urterik onena izaten aritza. Ez zara podiotik jaitsi.

Ez daramatzat urte asko mendi lasterketetan. Esan daiteke hirugarren urtea dudala, serio antzera. Asmo handirik gabe hasi nuen denboraldia, neure burua denboraz justu ikusten nuelako, baina gero, emaitzek lagunduta, motibazioa piztu zait, eta horrela lortu ditut orain arteko emaitza onenak.

Ez zara beteranoa mendi lasterketetan.

Mendizalea beti izan naiz, Pirinioetan eta ibilitakoa. Tolosan aurreneko aldiz T3T antolatu zutenean, probatu egingo nuela pentsatu nuen. Gero pentsatu nuen hurrengo urterako saiaturko nintzela hobetzen, ikusi nuelako nahiko ondo ibiltzen nintzela, eta hurrengo urtean egin nituen, bigarren T3T eta lehengo Zegama-Aizkorri. Hori 2016an izan zen, eta orduan hasi nintzen serioago. Asko zor diet T3T probako antolatzaileei, beraiengatik ez balitz, orain ez bainintzateke lasterketetan ibiliko. Gero beste proba batzuetan parte hartu dut, baina hasiera eta aurreneko gogo hori T3Trek izan zen.

Zein proba nabarmenduko zenuke?

Berastegiko Negu Trailekoa lehenengoa izan zen, otsailean, eta eskualdeko proba izanik berezia izan zen. Elurra zegoen, baldintza gogorrak, eta hirugarren postua lortu nuen. T2T proba irabaztea ere, Tolosan izanik, sari handi bat izan zen, baina Orioko lasterketa bereziki gogoan dut: maila handia zegoen, eta han hirugarren egitea neure buruarekin sinesten hasteko modua izan zen, denboraldiaren hasieran eta espero ez nuela.

Zegama-Aizkorriren ere parte hartu duzu aurten.

«Aurtengo denboraldiak lagunduko dit neure buruarengan sinesten»

IÑAKI OLANO MENDI LASTERKARIA

Altzotarrak hirugarren urtea du mendi lasterketetan, eta aurten bikain aritu da inguruko probetan. Bere aldean «onak asko» daudela dio, eta zail ikusten du datorren urtean halako denboraldia errepikatzea.



A. IMAZ

Hor denok dakigu beste maila bat dagoela. Lau ordu eta berrogei minutuko denbora egin nuen, eta 51. postuan sartu nintzen. Oso gustura nago lortutakoarekin, jakinda maila izugarria dagoela. Denboraldia hasi

«Asko zor diet T3Tko antolatzaileei, beraiengatik ez balitz, orain ez bainintzateke lasterketetan ibiliko»

nuenean helburuetako bat zen Zegama-Aizkorri denbora txukun bat egitea, eta beste bi urte-tarako dortsala lortzea; oso zaila da, eta orain dela bi urte egin nuen maratoia, eta bost orduko mugatik jaitsi nintzen. Esaten dute muga horretatik jaisten denak, nolabait, ziurtatuta izaten duela dortsala, beste bi urterako. Kontua da, aurreko urtean, Aratzetik behera min hartu nuela orkatilan, eta ezin izan nuela bukatu. Orduan, aurten berriro denbora ona egin behar izan dut,

beste bi urterako dortsala izateko. Otsailean hori nuen buruan: ea, behintzat, Zegaman denbora txukuna egiterik nuen. Eta, esan bezala, gustura nago, aurten egindako markarekin.

Beste probetara irabazteko asmoz joan zara?

Ezta pentsatu ere. Denboraldi hasieran ez nuen pentsatzen proba bakar batean hirugarren egingo nuenik ere. Orain bi urte lortu nuen lasterketa batean edo bestean, baina aurtengoa salto garrantzitsua izan da nire ibilbidean. Gorputza iaz baino gutxiago zailduta harrapatu nau denboraldiak, baina lasterketa bukaeretan indarrarekin antzematen nuen neure burua. Aurreko urtetatik nabaritu dudana ezberdintasun handiena izan da, kilometroak pasa ahala ez nuela behera egiten, gora ere egiten nuela, eta horrek zeure buruarekiko segurtasuna ematen dizu. Bestetan, pixka bat erreserbatuz atera behar izan dut, ez dakizulako justu iritsiko zaren karrera bukaerara.

Aurten banekien lasterketa bukaerara ondo iritsiko nintzela, eta horrek postuetan zeresana izan duela uste dut.

Ez da bakarrik gorputza nola duzun, aurreko postuetan egoteko ere buruak bere lan egiten du.

Lasterketan sartzen naizenean dena ematen dut, eta gero gorputzak erantzuten badizu, zeure buruarekin aldiro sinesten zoaz. Egia da denboraldi hasieran egin nituen podio horiek asko lagundu zidatela. Bestela, ez dakit horrelako emaitzak lortuko nituen, denboraldian zehar. Jaitsieretan ere dezente hobetu dut eta, beti esan izan da, nahiz eta gora ondo joan, behera ez badakizu jaisten, hor galtzen direla lasterketak. Lehengo urtetik asko hobetu dut horretan, eta baita abiadurako tokietan ere.

Zerbait aldatu duzu aurtengo denboraldiko prestaketan?

2017ko Zegama-Aizkorriren orkatila bihurritu nuen, eta joan den udazkenean minez eta ibili naiz.

Horregatik, aurrendenboraldi gehiago egin dut errepidean, mendian baino. Askok esaten dute horrek lagundu egin didala, mendirako abiadura hartzen. Une hartan min ematen zidan errepidean entrenatu beharrak eta mendira ezin joanak, mendia askoz ere gehiago gustatzen baitzait, baina azkenean onerako izan da.

Hemendik aurrera zer asmo duzu?

Uste dut aurtengo denboraldia amaitu dudala. Nire kasa ibiliko naiz, baina ez dut uste beste lasterketarik egingo dudunik. Udan pixka bat burua argitu, eta lagunekin eta familiarekin pixka bat gozatu nahi dug. Gorputzak atsedena ere behar du.

Eta hurrengo denboraldiari begira? Aurtengoa errepikatu edo hobetzeko asmorik?

Denboraldia errepikatzea zaila izango da. Aurten zortea izan dut lesioekin, eta gorputza ere ondo izan dut aldiro, beti sentsazio oso onekin, eta gorabeherarik gabe. Hurrengo urtean asmo berarekin jarraituko dut: presiorik gabe, eta ondo datorkidanean lasterketak eginez. Eta entrenatzen ere berdin, orain arte bezala, nire kasa. Gero, denboraldia ondo hasten baldin badugu, motibazioa piztuko zaigu, eta aurten bezala jarraituko dugu gerran, baina gehiegi larritu gabe. Azkenean afizio bat da, eta beti horrela ikusi izan dut.

Agian, aurrera begira, beste korrikalarietako gehiago hartuko zaituzte kontuan?

Gure aldean, onak asko daude. Batzuek ezagutzen zaituzte, baina ez dut uste mendi lasterketetan kontrol lana hain garrantzitsua denik. Mendiak bakoitza bere lekuan jartzen du, eta ni baino hobea denak, nahiz eta nik asko kontrolatu, alde egingo dit. Aurtengo denboraldiak lagunduko dit neure buruarengan sinesten, eta ikusi dut entrenamendu mota batek, errepidean ibiltzeak, asko lagundu didala. Hurrengo urtera begira gauza gehiago ikasi ditut. Zeure burua gehiago ezagutzen duzun heinean, uste dut hobetzea ere errazagoa dela. Bestalde, lasterketetan jendearekin hitz egiten duzu eta ikasten zoaz. Gero, neure buruari ez diot presiorik sartzen, eta asko balio du lasterketetara lasai joateak. Badakit zein mailatan nagoen, eta maila horretan moldatzen naiz, baina beste maila batzuetara salto handia dago, eta hori jakinda gozatzen atera naiz aurten, eta hurrengo urtean asmo berarekin jarraituko dut.



Familia argazkia atera zuten sanferminetan. ATARIA

Incansables txaranga, 25 urtez Alegria de Iruñarekin

Astelehenean omenaldia jaso zuen Tolosako txarangak; argazki bat eta txarangaren logoa daraman zapi gorria oparitu zieten, oroigarri gisa

Erredakzioa Tolosa

25 urtez aritu da, Incansables Txaranga, Alegria de Iruña peñarekin sanferminak alaitzen. 1994ko jaietan izan ziren lehengoz eta peñekideek gaurdaino jotzen aritu izana eskertzeko omenalditxoa egin zieten txarangako kideei, astelehenean.

Zilarrezko ezteiak ospatu zituzten, horrela.

Mende laurden honetan jotzen aritu diren hogeitik gora kide elkartu ziren asteleheneko hitzorduan, Iruñean. Goizean guztiek batera kalejira egin ondoren, bazkaltzeko elkartu ziren, eta ondoren elkarrekin egin zuten zezenetarako igoera.



IKASTURTEA AMAITUZ

Ibarra Martxan egitasmoak bukatu du ikasturtea, eta aho zapore ona utzi du, parte hartzaile eta antolatzaileen artean. Astero adineko 40 lagun elkartu dira paseora joateko. Ekaina bukatzearekin batera amaitu dute Ibarra Martxan egitasmoa. Erabiltzaileak gustura daude eta, beraz, datorren ikasturtean, urrian, berriz ere elkartuko dira. Horrela, ikasturtea amaitzeko ohiko paseo eman zuten eta, ondoren, hamaiketako ere egin zuten, Etxaniz Fundazioan. Astero, batez beste, 40 lagun elkartu dira, eta hainbat boluntarioren lana ere nabarmendu eta eskertu nahi izan du Ibarako Udalak; tartean, Uzturpe ikastolako ikasleena. ATARIA



XABIER ELOLA ZULAIKA

Villabonan, 2018ko uztailearen 11n

Lagun handia izan zaitugu joan den 40 urtean bidelaguna bizitzan zehar parrandan eta mendian ostegunetan afari ederrak elkarrengana biltzean lagunak lagun bikaina eta besteen alde lanean guregan beti biziko zara bizi garen bitartean

Hire lagunak

Hilberriak eta urteurrenak



XABIER ELOLA ZULAIKA

LABeko delegatu ohia

Izar gorri bat piztutzeroa zoaz, Euskal herriko zeru gainean.

"Tolosaldeko LAB"



BAUTISTA OTAEGI ITURRIZA

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin geratzen da.

Ibarako ezker abertzalea

ataria jarrita Gipuzkoako 3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenean asteazkenean 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketa jokatu dute Alegian

Karmen jaien barruan esku pilotari profesionalen jaialdia antolatu dute, dohainik, larunbatean; Iñaki Artolak jokatu du herritarren aurrean

Asier Imaz Alegia

Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketa edo XIII. Txintxarri Saria igandean jokatu dute Alegian, Karmen jaien barruan. 18:30etik aurrera, Larraitz auzoko plazan, sei harri-jasotzaile ariko dira lehia: Aimar Irigoien, Hodei Iruretagoiena *Izeta IV.a*, Mikel Lopetegi *Urra*, Xabier Peñagari-kano *Peña*, Imanol Albisu *Goikoetxe* eta Xabat Olaizola.

Harri-jasotzaile bakoitzak hiru minutuko txanda egingo du harri bakoitzarekin. Harriak honakoak izango dira: 125 kiloko kopa; 112,5 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola. Txapelketa federatua izango denez, doping azterketa egingo diete harri-jasotzaileei. Marka hausten duenak sari berezia jasoko du.

Harri-jasotzaile munduan ohikoa da, azken uneko lesioak medio, bateren batek kale egitea. Antolakuntzako kideek esan dutenez, oraingoan, izena emandako harri-jasotzaile guztiak igandean Alegian izango dira.

Txapela irabazteko faborito garbia Aimar Irigoien errezildarra da, iazko txapelduna. Bigarren posturako lehia polita egon daiteke *Urra*, *Izeta IV*, *Peña* eta *Goikoetxeren* artean. Iaz Mikel



Idoia Etxeberria Alegian, 2015ean. Orioko harri-jasotzailea igandean berriro Karmen jaian izango da. JONE AMONARRIZ

Lopetegi *Urrak* lortu zuen Irigoien atzetik geratzea.

Txintxarri Sariaz edo txapelketaz gain, Idoia Etxeberria eta Karmele Gisasolak erakustaldia eskainiko dute.

PROFESIONALEN PARTIDA

Aurreko egunean, larunbatean, esku pilotariak ariko dira lanean, Elorri frontoian, 18:00etatik aurrera.

Alde batetik, Alegiako VIII. Pilota Txapelketaren finalak jokatu dituzte. Bestetik, profesionalen partida izango da. Sarrrera doan jarri dute.

Herriko pilota txapelketaren finalak gazteen eta seniorren mailan jokatu dituzte. Amiano-Uzkudun eta Zubeldia-Lizeaga izango dira pilota jaialdiari hasiera emango diotenak. Ondoren, seniorren finalean, Eneko Labakak eta Aizpuruk, Zubiria-Garmendiaren aurka neurtuko dituzte indarrak.

Jaialdiko hirugarren eta azken partida izango da profesionalena. Iñaki Artola etxeko pilotaria bertan izango da, Urretabizkaia II. arekin bikotea osatuz. Hauen aurkariak Laso eta Erasun zizurkildarra izango dira.

Maria Lasak ez du kanporaketa gainditu munduko txapelketan

Atleta irurarrak 800 metroko proban seigarren egin du; lehen lau korrikalariak gainditzen zuten kanporaketa

Erredakzioa Tolosa

Amaitu da, Maria Lasarentzat, 20 urtez azpiko Munduko Atletismo Txapelketa, Tampere, Finlandian. Atleta irurarrak 800 metroko lasterketan parte hartu zuen, herenegun. Lehen kanporaketa laugarren kaletik atera zen Lasa, eta lasterketa amaierara arte aurreko multzoan joan zen. Ez zen lasterketa azkarra izan, eta amaierako metroetan erabaki ziren parte hartzaileen postuak. Lehen laurek saria zuten, aurrera egiteko txartela. Maria Lasa seigarren geratu zen, esprintean aurkariak gehiago izan zirelako. Irurarraren ametsa finalerdietarako sailkatzea zen.



Maria Lasa atleta irurarra. ATARIA

Jokin Altunak min hartu du

Artolak Urrutikoetxearen lekua hartuko du Bizkaia Txapelketan

A. Imaz

Bizkarrean min hartu zuen asteartearen Jokin Altunak, San Fermin Txapelketako binakako partida jokatzeko ari zela. 12-8 geratu zen partida, amezketarrak jarraitzerik ez baitzuen izan. Zitxada sentitu zuen bizkarrean, eta Iñigo Simon medikuaren lehen azterketen arabera, lunbalgia bat izan daiteke. Hala eta guztiz ere, Aspeko aurrelariari erresonan-

tzia bat egin diote lesioaren nondik norakoak hobeto ezagutzeko. San Fermin Txapelketan Elezkano II.ak hartu du Altuna III.aren lekua.

IÑAKI ARTOLAREN AUKERA

Mikel Urrutikoetxea Asegarceko pilotaria kantxetatik kanpo egongo da, denbora batez, mononukleosia gaitzagatik. Taldekako Bizkaia Txapelketa jokatzeko zen Urrutikoetxea. Anboto



Artola Urrutikoetxearen lekuan. A.I.

taldeko kidea zen bizkaitarra eta, binaka, Albisurekin osatu behar zuen bikotea, uztailearen 22ko finalerdietan. Asegarceko ordezkariak azaldu dutenez, Urrutikoetxearen lekua Iñaki Artolak hartuko du. Taldeko beste kideak Victor eta Jon Erasun dira, lau t'erdian eta kantxa osoan buruz buruz, hurrenez hurren. Anbotokoen aurkariak Oiz edo Ganekogorta taldeetako pilotariak izango dira.

TALDE KOMERTZIALAREN KOORDINATZAILEA. (KOM-2018 erreferentzia)

Tokiko hedabide talde batek talde komertzialaren koordinatzaile eta dinamizatzaile behar du. Koordinatzaile publikitate eskaintza bereziaz ere arduratuko da.

Eskaintzen da:

- > Irailetik urtea amaitu arteko lan kontratua, eta luzatzeko aukera.
- > Zati finko batez eta komisioz osatutako soldata.

Eskatzen da:

- > Kudeaketan eta arlo komertzialean ezagutzak izatea.
- > Taldeen gidaritzan eskarmentua izatea.
- > Komertzial lanean esperientzia izatea.
- > Antzeko lanetan eskarmentua izatea.
- > Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- > Gutxienez EGA edo baliokidea den euskara maila izatea.
- > Gidabaimena eta autoa izatea.

Interesa izanez gero, bidali CVa gizabaliabideak@berriataldea.eus posta elektronikora, KOM-2018 erreferentzia zehazturik, 2018ko uztailearen 16a baino lehen.



OSTEGUNA, 2018KO UZTAILAK 12

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082, tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetalea: 687 410 022.

anoetalea@ataria.eus

Ibarralde: 687 410 118, ibarralde@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 1132, kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: 902 82 02 01



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



PUBLIRREPORTAJEA

TOLOSALDEA LHII

Nola jorrotzen du ekintzailetasuna Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak?

Oihana Mendizabal: Ikasenpresa eta Urrats Bat proiektuak ditugu. Ikasenpresarekin enpresa baten sorreraren simulazioa egiten dute ikasgelan; Urrats Batekin, berriz, edonork buruan duen ideia gauzatzen dute, enpresa benetan sortuz. Guk, bide horretan laguntza eta aholkularitza eskaitzen ditugu. Modu batera ala bestera, bien helburua da ekintzailtza bultzatzea.

Azaldu zer den Ikasenpresa egitasmoa.

O.M.: Ekintzailtza modu praktiko batean lantzen duen metodologia berria da Ikasenpresa, ikasgai bat balitz bezala. Azken batean, Enpresa eta Ekimen Sortzaile ikasgaia ia ikastetxeko ziklo guztietan txertaturik dago. Modu horretan, enpresa bat behe-behetik sortzen ikasten dute ikasleek. Ez da erreal, baina sortu bitarteko prozesua ikasten dute, praktikan oinarrituz. Gero, beste ikastetxeekin dugun sare batean elkarbanatzen dituzte euren ikasenpresak.

Zein da Ikasenpresa sortzeko abiapuntua?

Olatz Imaz: Ideia finkatzetik hasten da prozesua. Ahal dela, zikloarekin zerikusia izatea eskatzen diegu. Bideragarria eta merkatu eskaerarekin bat datorrena ere izan behar du. Lehen urrats hori kosta egiten da, nekeza da.

Alaitz Otegi: Horretarako ideia zaparradak eta beste hainbat teknika erabiltzen dira.

Ideia finkatu ondoren, nola lantzen da prozesua?

O.I.: Enpresa horren argazki orokor bat lantzen dute, Canvas delakoa. Hainbat ideia nagusi garatu behar izaten dituzte: merkatua ikertu ostean, beren publikoa zehaztu; izaera juridikoa definitu; egunero beharko dituzten baliabide kopurua finkatu; bezeroekiko komunikazioa landu; balio erantsia markatu; kompetentzia ezagutu; gastuak eta diru-sarrerak kalkulatu; finantziario iturriak bilatu... Beste bi puntu garrantzitsu ere badaude: enpresaren irudia eta promozioa lantzea, eta beste enpresa bazkideren bat beharko luketen aztertzea. Zentzu horretan, gainerako ikasenpresarekin kolaborazioak ere bilatzen ditugu, trukeak. Laburbilduz, enpresa plan erreal bat egin



«Ez dago zertan enpresa bat sortu ekintzaile izateko; enpresan ere izan zaitezke»

Alaitz Otegi, Olatz Imaz eta Oihana Mendizabal Tolosaldea LHII-ko irakasleak

Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak bi modutara jorrotzen du ekintzailtasuna; zerotik enpresa baten sorrera simulatuz, eta enpresa errealak sortzen lagunduz.

behar dute, eta ez guk emandako oinarri edo egoera batetik abiatuta; beraiek proposatutako ideia batetik baizik. Amaieran balorazio bat egin behar izaten dute, ideia hori bideragarria ote den aztertzeko.

Gerta daiteke ideia zena benetakoa enpresa bihurtzea?

O.M.: Bai, baina ez da erraza izaten. Tolosaldeko inguru hau oso industrial da eta, egia esan, lan merkatua nahiko ondo dago. Oso zaila da Ikasenpresa batetik Urrats Bateko enpresa bat sortzea.

O.I.: Beste ziklo batzuk eskaintzen dituzten lekuetan, adibidez, ohikoagoa da: irudi pertsonala, estetika... Ziklo industrialekin baino gehiago, zerbitzuekin lotura duten kasuetan. Informatika

ere izan daiteke beste alor interesgarri bat.

Urrats Bat-ekin, berriz, benetan sortzen da enpresa. Zein bide jarraitzen duzue horretarako?

A.O.: Urte osoan sentsibilizazio kanpainak egiten ditugu ikasgelan. Azaltzen diegu zer egiten dugun, eta non gauden. Foru aldundiko diru-laguntza batzuei esker, esaterako, saio bat antolatu genuen Teknikarekin batera.

O.M.: Guk hasieratik argi uzten dieguna da, laguntza ematen diegula guk, euskaraz, baina prozesua beraiek eman behar dutela aurrera. Zalantzak argitu, nora jo dezaketen esan, diru-laguntzen informazioa eman... Enpresa planak, normalean, Tolosaldea Garatzenekin egiten dituzte.

A.O.: Batzuk oso landuta izaten dute beren ideia eta, beste batzuk, aldiz, badute ideia bat, baina ez dakite nola gauzatu. Orduan, lan-keta oso ezberdina da horren arabera.

Zein profiletako jendea izaten duzue?

A.O.: Ikasenpresakoak gure ikasleak dira. Gutxi-gorabehera, bost pertsonako ikasenpresa bat osatzen dute. Baina, Urrats Baten egon daiteke arratsaldetan ikastaroren batean dagoen norbait, edo ikasle ohiren bat. Bada langabezian dagoen jendea ere. Ideia bat izatea da kontua.

O.M.: Gehienak, hala ere, lan merkatutik pasatakoak izaten dira. Ideia bat ehundu dutenak, eta salto bat eman nahi dutenak.

Baduzue enpresa baten adibide adierazgarririk?

O.M.: Aurten, esaterako, ikasle ohi batek sortu duen hostel batekin izan dugu lan gehien. Lanean ari da, baina hori zen bere ametsa. Leitzarain inguruan baserri zahar bat erosi, eta berritu egin du. Proiektua aurrera eramaten lagundu diogu.

A.O.: Ikasenpresan, berriz, mila adibide daude. Lanparak, intxaur

zulagailuak... egiten dituzte gainerako ikasgaietako lan erronketan, eta horien inguruko ikasenpresak sortu dituzte. Beste batzuk, adibidez, etxeetan euriaren ura aprobetxatzen duen sistema bat sortu zuten. Danbolinak, bizikletan zoazen bitartean mugikorra kargatzeko sistema bat... Gauza politak ateratzen dira.

O.I.: Urte batzuetan 3D inprimagailuari probetxua ateratzeko baliatu izan dugu. Ikasgaietan txertatzen da, baina gero ideiarik gabe geratzen dira. Etorkizuneko tresna bat da, eta beraien ikasenpresak ere hortik bideratzeko saiakerak egin izan ditugu.

Esperientziak partekatzeko sare bat baduzue.

O.I.: Bai, Teknikatik bideratutako proiektu bat da, eta tarteka beste zonaldeetako ikasenpresetako arduradunekin elkartzeko gara. Kongresu orokor bat egiten dugu, eta hor lurraldeko antolatzen gara, urtero dinamikak aldatuz. Minutu bateko aurkezpena egiten dute ikasle guztiak, sortzen ari diren proiektu hori azalduz. Azoka bat ere egiten dugu, eta hor bakoitzak bere lekua du, eta produktu edo zerbitzuak saldu ditzake.

Ekintzailea da Tolosaldea?

O.M.: Eskualde honetan langabezia jaisten ari da eta, beharbada orain, ekintzaile izateko edo enpresa bat sortzeko behar hori ez da hain nabarmena. Baina guk asko lantzen dugu honakoa: ez da enpresa bat sortu behar ekintzaile izateko, denok izan gaitzake ekintzaile enpresa baten barruan. Horri garrantzia eman nahi diogu.

A.O.: Ekintzailtza zerbait transbertsala da, lanerako jarrera bat.

O.I.: Zeharkako gaitasun horiek oso garrantzitsuak dira: lidergo-tza, erabakiak hartzea, gatazkak konpontzea, komunikazioa... Azken finean, gaur egungo merkatua asko ari da aldatzen, eta egoera askori egin beharko diete aurre. Horregatik da garrantzitsua zeharkako gaitasun horiek gartztea. Familia enpresa asko daude hemen, eta ondorengo belaunaldiak jarraitu izan dute horrek. Hor ere jarrera bat izatea garrantzitsua da. Hemen enpresa tradizional asko daude baina, urteen poderioz, gauzak aldatuz joan dira, eta ez dute zerikusirik. Hor-taz, Tolosaldea ekintzailea da, bai, jakin duelako merkatuaren eskaerari egokitzen.